



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

UDALBATZAK 2015KO MARTXOAREN 31N EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURA

BERTARATUAK:

Jesus Peñagarikano Labaka
Eugenio Lopetegi Artano
Itziar Saizar Ibarzabal
Oihane Sarasola Nosellas
Laida Zubillaga Garmendia
Naiara Lopetegi Aiestaran
M^a Consuelo Romeo Aya
M^a Iciar Jauregui Huarte

Ibarran, **bi mila eta hamabosteko martxoaren hogeita hamaikan** arratsaldeko zazpirak zirenean udalbatzak bilera egin zuen udaletxeko bilera-aretoan eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko osoko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden. Egintzaren buru, Jesus Peñagarikano Labaka, eta behin-behineko idazkari lanetan Arantza Arrue Etxeberria aritu zen.

EZ DIRA AGERTU:

Aitor Gonzalez Blanco
Mikel Agirrezabala Ezkurdia
Hanot Karrera Amondarain

Ibarran, bi mila eta hamabosteko martxoaren hogeita hamaikako, arratsaldeko zazpiak direnean, Udalbatzak bilera egin du udaletxeko bilera-aretoan eta goian adierazitako jaun-andreak elkartu dira ohiko osoko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden. Egintzaren buru Jesus Peñagarikano Labaka alkate jauna izan da, eta behin-behineko idazkari lanetan Arantza Arrue Etxeberria.

Egintza hasi aurretik Alkateak eguneko gai-zerrendan mozio bat gehitzea proposatzen du; Osasun Publikoaren aldeko mozioa.

Udalbatzak, aho-batez, 8 aldeko botorekin, (6 BILDU eta 2 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Onartzea Osasun Publikoaren aldeko mozioa gaur ospatzen den Udalbatzaren eguneko gai zerrendan barneratzea.

1) 2015eko otsailaren 26an eginiko ohiko udalbatza bilkuraren aktaren onarpena



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- 2) Alkate Dekretuak: 29/2015etik 50/2015era dekretuak jakinaraztea
- 3) Hirigintza Antolaketaren Plan Orokorren haserako idazketa egiteko helburu eta ildoen onarpena
- 4) Bildu Koalizioak aurkezten duen mozioa: Jaurlaritzak bultzatu duen udal Lege asmoaren aurrean
- 5) Bildu Koalizioak aurkezten duen mozioa: Osasun Publikoaren aldeko mozioa.
- 6) Galde-Erreguak.

LEHENENGOA

2015EKO OTSAILAREN 26AN EGINIKO OHIKO UDALBATZA BILKURAREN AKTAREN ONARPENA

Irakurri da 2015eko otsailaren 26ko ohiko bilkurako akta.

Udalbatzak, BILDUren 6 aldeko botorekin, eta EAJ-PNV-ren 2 abstentziorekin, honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Onartzea, 2015eko otsailaren 26ko ohiko bilkurako akta.

BIGARRENA

ALKATE DEKRETUAK: 29/2015etik 50/2015era JAKINARAZTEA

Alkateak azken ohiko bilkuratik, 2015eko otsailaren 26tik aurrera onarturiko dekretuen berri eman du, hain zuzen 29/2015etik 50/2015era.

Jakinaren gainean gelditu da Udalbatza

HIRUGARRENA

HIRIGINTZA ANTOLAKETAREN PLAN OROKORRAREN HASERAKO IDAZKETA EGITEKO HELBURU ETA ILDOEN ONARPENA

La arquitecta municipal da lectura al dictámen de la Comisión de Urbanismo celebrada el día 27 de marzo de 2015, en el que se concretaron las pautas para la continuación del proceso de redacción del documento del Plan General de ordenación urbana de Ibarra, y su estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental, a someter a su aprobación inicial municipal y a su exposición pública, cuyo texto literal es el siguiente:



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Se ha analizado en primer lugar el documento presentado el 30 de octubre de 2014 por el nuevo equipo redactor del Plan General de Ordenación Urbana formado por los arquitectos Santiago Peñalba y Manu Arruabarrena, y el abogado Mikel Iriondo Iturrioz, denominado “Documento de estado de la cuestión y expresión de propuestas”.

En dicho documento, dando continuidad al proceso de redacción del Plan General en curso desde el año 2004, se ha actualizado el diagnóstico socio urbanístico, realizando adicionalmente una aproximación a las propuestas de ordenación que se consideran adecuadas para el actual contexto socio económico, así como proponiendo los pasos a dar para la continuidad de la tramitación del documento.

En segundo lugar se ha tenido en cuenta el proceso participativo abierto con la ciudadanía, orientado por el equipo de ENEA, que ha seguido en los últimos meses a la redacción de aquel documento y a la del diagnóstico de la Agenda Local 21. Así, en un total de 7 sesiones realizadas en euskera y castellano, los ciudadanos han participado en el análisis del municipio y de las posibilidades de crecimiento y reordenación de Ibarra en los próximos 10 años.

Como consecuencia de todo ello se han subrayado, entre otras, las siguientes problemáticas generales a las que debe hacer frente el PGOU de Ibarra:

- La escasa relación de los ciudadanos de Ibarra con el río Zelai.*
- La carencia de espacios libres y zonas de estancia y acogida para la ciudadanía.*
- La falta de conexión entre los distintos barrios, viaria y peatonal, debido a la carencia de una estructura urbana adecuada.*
- La falta de trama urbana, limitada a la red de carreteras que da lugar a un esquema lineal basado en la calle Euskalerría y la carretera a Leaburu, a las que se conectan de manera aislada barrios o grupos residenciales.*
- La necesidad de la mejora de la accesibilidad al medio rural.*
- La urgente necesidad de disponer suelo para nuevas ofertas residenciales que resulten atractivas y accesibles a los ciudadanos de Ibarra.*
- La necesidad de regenerar el suelo urbano existente dotándolo de nuevas dotaciones de aparcamiento, vías ciclistas y espacios libres de estancia soleada y agradable.*

Tanto el nuevo “Documento de estado de la cuestión y expresión de propuestas”.realizado como las observaciones y aportaciones formuladas por la ciudadanía han sido decisivas a la hora de establecer las pautas que se detallan a continuación y que deben servir de base para la redacción del documento de Plan General a someter a su nueva Aprobación Inicial municipal.

PAUTAS

La revisión de las NNSS, iniciada el año 2004 en un contexto de burbuja inmobiliaria, y, en particular, la propuesta concretada en su desarrollo en el año 2011, planteaban una estrategia de ocupación de prácticamente todos los vacíos urbanos de Ibarra. Sin embargo, en estos momentos de crisis económica se ha considerado oportuno reconsiderar aquella alternativa y reconducir las pautas a seguir, dotando al municipio de Ibarra de un Plan que resuelva de forma más acotada las necesidades existentes y que aporte la necesaria estabilidad y confianza normativa que puedan procurar un futuro adecuado para el municipio. En ese contexto se plantea seguir las siguientes pautas:



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

PRIMERO: Ordenar tan sólo aquellos vacíos urbanos que sean estrictamente necesarios para dar servicio a la ciudadanía en el horizonte temporal del Plan (ocho años), de forma que garanticen un crecimiento natural y armónico del municipio así como la regeneración del parque inmobiliario existente, manteniendo en buena medida las huertas preexistentes en la vega y, en particular, las actividades agrarias en Zume y Montes.

Con ese planteamiento se prioriza, como estrategia de evolución urbana, la regeneración urbana de los entornos edificados y la continuidad urbana en ámbitos como Gurutzeaga-Emeterio Arrese, Ezeizanea-Errekondone, Elduaran-Gaiarre, Malkorrene-Eskuzarre, Ibategi-Eguzkialde, y San Bartolomé-Zaldune-Azkue; así como la dotación de espacios libres suficientes, a localizar en parte con la finalidad de recuperar la relación con el río Zelai en el área urbana.

SEGUNDO: En cuanto a la cuantificación de la nueva oferta residencial, en atención al diagnóstico realizado, y a la vista de la crítica y singular situación del municipio cuya oferta de nuevos suelos residenciales es prácticamente nula, habiendo dado lugar a un movimiento migratorio de los jóvenes hacia otros municipios cercanos en los últimos años, se plantea ajustar la nueva oferta residencial a la máxima autorizada por el nuevo método de cuantificación de las DOT en trámite, sin perjuicio de que se dé respuesta a la vez a lo dispuesto en el apartado primero.

TERCERO: Las vigentes NNSS de Ibarra disponen de suficiente suelo calificado con destino a actividades económicas sobre todo teniendo en cuenta la última modificación aprobada en la que se preveía la ordenación de una segunda fase del Polígono Industrial de Apatta, cuya iniciativa se propone en principio consolidar.

No obstante, se plantea por un lado el estudio de una eventual reducción de la extensión de esa segunda fase de Apatta, limitando la superficie a rellenar y reconsiderando el sistema de accesos al ámbito; y, por otro, la descalificación para tal fin del suelo urbanizable industrial correspondiente a la “Z.PI Ctra. Leaburu”.

Además es un objetivo del presente Plan generar cierta actividad económica comercial y de servicios, compatible con el uso residencial, por lo que así deberá contemplarse tanto en la ordenación de los suelos consolidados como en los nuevos ámbitos.

CUARTO: Dado el déficit de espacios libres del municipio y la posibilidad de apertura al río Zelai del área urbana, se plantea la obtención de espacios libres de calidad junto al mismo. En concreto se plantean las iniciativas de crear un continuo de espacios libres inmediato al río Zelai en los ámbitos de Errekondone-Ezeizanea, en continuidad con el parque Zumardi Handi de Tolosa, y de Ibategi, junto a la plaza San Bartolomé.

Además de los espacios libres destinados a parques y zonas verdes se deben ordenar otros espacios públicos que permitan crear pequeñas zonas de aparcamiento que den servicio a las nuevas ordenaciones y a las existentes. A tal fin se considera que debe contemplarse la trasera de Elduaran, parte de los espacios del ámbito Gurutzeaga, la trasera de Euskalerría 55-59, entre otros.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

QUINTO: Una cuestión básica a considerar en el Plan General ha de ser la mejora de las condiciones de movilidad en el municipio y, en particular, en el área urbana. Y nos referimos priritariamente a las condiciones de movilidad peatonal y ciclista.

Para ello, de acuerdo con los trabajos realizados, se estudiarán la propuesta de trazado de la variante prevista desde la ordenación territorial y sus ventajas y desventajas, en orden a decidir sobre su oportunidad; y, en consecuencia, se adoptarán las medidas precisas en la reordenación del área urbana, procurando que ésta se estructure mediante calles en lugar de carreteras, y mediante un entramado de itinerarios peatonales y ciclistas seguro y accesible.

SEXTO: Es objetivo del Plan respetar el destino del suelo rural y protegerlo de la especulación inmobiliaria, favoreciendo las actividades propias de esos suelos. En relación al caserío existente se considerará la regulación de los posibles usos del mismo, incluso el número de viviendas por edificación, propiciando la puesta en uso de ésta; y, por otro lado, se procurará la ordenación de la oportuna red de carreteras rurales.

SÉPTIMO: No se prevén nuevos desarrollos urbanísticos en Izaskun; sin embargo, si se considera adecuado la adopción de medidas que puedan favorecer la implantación de usos de hospedaje y de alguna zona cubierta cercana a la ermita que permitan mejorar la calidad de las infraestructuras urbanas de ese entorno.

Udalbatzak, BILDUren 6 aldeko botorekin, eta EAJ-PNV-ren 2 abstentziorekin, honako hau

ERABAKITZEN DU

UNICO: Aprobar las siguientes pautas para la continuación del proceso de redacción del documento del Plan General de ordenación urbana de Ibarra, y su estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental, a someter a su aprobación inicial municipal y a su exposición pública:

1.- Ordenar tan sólo aquellos vacíos urbanos que sean estrictamente necesarios para dar servicio a la ciudadanía en el horizonte temporal del Plan (ocho años), de forma que garanticen un crecimiento natural y armónico del municipio así como la regeneración del parque inmobiliario existente, manteniendo en buena medida las huertas preexistentes en la vega y, en particular, las actividades agrarias en Zume y Montes.

Con ese planteamiento se prioriza, como estrategia de evolución urbana, la regeneración urbana de los entornos edificados y la continuidad urbana en ámbitos como Gurutzeaga-Emeterio Arrese, Ezeizanea-Errekondone, Elduaran-Gaiarre, Malkorrene-Eskuzarre, Ibategi-Eguzkialde, y San Bartolomé-Zaldune-Azkue; así como la dotación de espacios libres suficientes, a localizar en parte con la finalidad de recuperar la relación con el río Zelai en el área urbana.

2.- En cuanto a la cuantificación de la nueva oferta residencial, en atención al diagnóstico realizado, y a la vista de la crítica y singular situación del municipio cuya oferta de nuevos suelos residenciales es prácticamente nula, habiendo dado lugar a un movimiento migratorio de los jóvenes hacia otros municipios cercanos en los últimos años, se plantea ajustar la nueva



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

oferta residencial a la máxima autorizada por el nuevo método de cuantificación de las DOT en trámite, sin perjuicio de que se dé respuesta a la vez a lo dispuesto en el apartado primero.

3.- Las vigentes NNSS de Ibarra disponen de suficiente suelo calificado con destino a actividades económicas sobre todo teniendo en cuenta la última modificación aprobada en la que se preveía la ordenación de una segunda fase del Polígono Industrial de Apatta, cuya iniciativa se propone en principio consolidar.

No obstante, se plantea por un lado el estudio de una eventual reducción de la extensión de esa segunda fase de Apatta, limitando la superficie a rellenar y reconsiderando el sistema de accesos al ámbito; y, por otro, la descalificación para tal fin del suelo urbanizable industrial correspondiente a la “Z.PI Ctra. Leaburu”.

Además es un objetivo del presente Plan generar cierta actividad económica comercial y de servicios, compatible con el uso residencial, por lo que así deberá contemplarse tanto en la ordenación de los suelos consolidados como en los nuevos ámbitos.

4.- Dado el déficit de espacios libres del municipio y la posibilidad de apertura al río Zelai del área urbana, se plantea la obtención de espacios libres de calidad junto al mismo. En concreto se plantean las iniciativas de crear un continuo de espacios libres inmediato al río Zelai en los ámbitos de Errekondone-Ezeizanea, en continuidad con el parque Zumardi Handi de Tolosa, y de Ibategi, junto a la plaza San Bartolomé.

Además de los espacios libres destinados a parques y zonas verdes se deben ordenar otros espacios públicos que permitan crear pequeñas zonas de aparcamiento que den servicio a las nuevas ordenaciones y a las existentes. A tal fin se considera que debe contemplarse la trasera de Elduaran, parte de los espacios del ámbito Gurutzeaga, la trasera de Euskalerría 55-59, entre otros.

5.- Una cuestión básica a considerar en el Plan General ha de ser la mejora de las condiciones de movilidad en el municipio y, en particular, en el área urbana. Y nos referimos prioritariamente a las condiciones de movilidad peatonal y ciclista.

Para ello, de acuerdo con los trabajos realizados, se estudiarán la propuesta de trazado de la variante prevista desde la ordenación territorial y sus ventajas y desventajas, en orden a decidir sobre su oportunidad; y, en consecuencia, se adoptarán las medidas precisas en la reordenación del área urbana, procurando que ésta se estructure mediante calles en lugar de carreteras, y mediante un entramado de itinerarios peatonales y ciclistas seguro y accesible.

6.- Es objetivo del Plan respetar el destino del suelo rural y protegerlo de la especulación inmobiliaria, favoreciendo las actividades propias de esos suelos. En relación al caserío existente se considerará la regulación de los posibles usos del mismo, incluso el número de viviendas por edificación, propiciando la puesta en uso de ésta; y, por otro lado, se procurará la ordenación de la oportuna red de carreteras rurales.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

7.- No se prevén nuevos desarrollos urbanísticos en Izaskun; sin embargo, si se considera adecuado la adopción de medidas que puedan favorecer la implantación de usos de hospedaje y de alguna zona cubierta cercana a la ermita que permitan mejorar la calidad de las infraestructuras urbanas de ese entorno

LAUGARRENA

MOZIOA: JAURLARITZAK BULTZATU DUEN UDAL LEGE EGITASMOAREN AURREAN

Eusko Jaurlaritza bultzatzen ari den Udal Lege egitasmoaren aurrean EH Bildu koalizioak zera adierazi nahi du:

Udal Lege egitasmo hau berandu dator. 35 urte kosta izan zaio Jaurlaritzari egitasmo hau martxan jartzea. Eta denbora honen ondoren gauzak ongi egin eta protagonismoa udalei eman ordez, presa handiarekin jarri da martxan. Hainbeste denbora pasa ondoren, merezi zuen lasaitasunez, modu zabalean eta sakonki zein udal eredu nahi dugun eztabaidatzea. Horren ordez, uneko interes politikoak eta "presak" agindu dute. Udalen ordezkarien ahotsa zuzenean entzuteko eta udal ordezkarien ekarpenak biltzeko ez da inolako mekanismorik abian jarri. Ez da zilegi udalengan halako eragina izango duen egitasmo bat aurrera eramateko udalen parte-hartzerik ez bilatzea.

Lege egitasmoak parte-hartzeaz asko hitz egiten du. Aldiz, legearen kudeaketan lege honen onuradun/kaltetu nagusi izango direnei ez zaie parte hartzeko aukera berezirik eman. Legearen lanketan ez da udalen kezka, behar edo iradokizunik jasotzeko ahaleginik egin. Legearen prozedura parlamentarioan ere ez da norabide horretan urratsik aurreikusten. Udalen ordezkariak guztia EUDELen esku uzten da. Zoritxarrez, gaur egun EUDELe ez ditu EAEko udal guztiak ordezkatzeko. Udal eta udal ordezkarien parte-hartzea ezin daiteke soilik EUDELen ekarpenetara mugatu. Udaletan lanean diharduen kidegoarengana zabalduko diren bestelako mekanismoak ezinbestekoak dira. Gainontzean, egitasmo honek hastapenetik konpongaitza den arazoa izango du bere baitan.

LEGEAK PROPOSATZEN DUEN FINANTZIAZIO EREDUA: Udalei hainbat eskumen berri bereganatzeko aukera onartzen zaie. Aitzitik, ez da oso argi geratzen eskumen horiek guztiak garatzeko finantziario bide berriak zeintzuk izango diren. Aurreikuspen batzuk egiten dira, baina oso azaletik. Horrekin, udalak gaur eguneko egoera berean geratzen dira. Eskumenekin batera finantziariozko iturri berriak aurreikusi beharko liriateke. Bata bestea gabe egiteak desoreka handiak sortzen dituelako.

Bestalde, ez dagozkien baina jada garatzen dituzten eskumenak onartzen zaizkie udalei, baina finantziario bide berririk ez. Tamalez, hori horrela, hainbat udalek ezingo liokete gaur egungo egoerari eutsi.

Ez da instituzioen arteko kuota eguneratu edo egokitze urratsik ematen. EAEko erakundeen arteko baliabideen banaketa Ekarpene Legearen arabera da. Bertan koefiziente bertikala eta horizontalen bidez banatzen dira baliabideak. Eusko Jaurlaritzak %70,04 jasotzen du eta gainontzeko %29,96 aldundien eta udalen artean banatzen da. Koefiziente horien moldaketa edo



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

eguneratzeak ahalbideratu beharko lituzke eskumen berriak garatzeko finantziario nahikotasuna.

HIZKUNTZA: Indarrean dagoen Euskaren Legea oinarritzat hartuta, Udalen Lege honetan, hizkuntzaren erabileran, euskaraz hitz egiteko borondaterik ez dutenen eskubideak lehenesten dira. Era berean, Euskara hutsean bizi nahi duten herritarren eskubideak bortxatzen dira. Udalek euskara hutsez jarduteko duten borondatea indartu eta babestu egin behar da. Lege honek ez du bere horretan hori bermatzen eta horretarako aukera bikaina galtzen da. Hizkuntz eskubideen bermean aurrerapausoak eman behar dira. Urrats horiek legeak berak espresuki bildu behar ditu.

UDAL AUTONOMIAREN DEFENTSA: hitzaurrean adierazpen garrantzitsuak egiten dira norabide horretan. Ildo beretik, artikulatuak ere hainbat aipamen gordetzen ditu. Tamalez, hori guztia filosofia hutsean geratzen da. Momentu honetan badira zenbait lege sektorial tramitazioan (EAEko portuen kudeaketarako lege egitasmoa, Funtzio publikoaren Legea,...) udalen hainbat eskumen bertan behera utziko lituzketenak. Hori da ekidin beharreko jarduera. Izan ere, lege honetan autonomiaren defentsa egiteak ez du ezertarako balio gero praktikan beste lege sektorial batzuen bitartez urratzen bada. Hitzaurrean ez ezik, artikulatuaren bidez ere bermatu behar litzateke hori guztia. Udal lege honek lege marko izaera izan dezan neurriak hartu behar dira. Hartara, gerora abiarazten diren lege sektorial guztiek lege egitasmo hau errespetatu beharko lukete.

Bestalde, udalek eskumen berriak eskuratzea euren kaudimenarekin lotu nahi du legeak. Hori udalen autonomia defendatzearekin zuzenean kontrajartzen da. Udalek kudeatu beharreko eskumenen ardatzak ezin du ogasun baldintzetan oinarritu. Autonomia lokalaren defentsak beste oinarri batzuk eduki behar ditu: gertutasuna, zerbitzuen kalitatea, herritarren onura,...

Lege honek salto kualitatibo bat izan beharko luke. Zoritxarrez, alor jakin batzuk arautzera mugatzen da. Oinarrizko legedia estatukoak izaten jarraituko du. Hortaz, EAEko udalen inguruabar guztiak arautzeko erronkari eutsi ordez, bestelako interesak ahalbideratzen dira. Bien bitartean, EAEko udalek legeria espainiarrera lotuta jarraitu beharko dute.

EUDEL: erakunde honen aldeko diskriminazio positiboa burutzen da lege egitasmo honetan. Lege honek udalen mintzakide bakartzat hartu nahi du EUDEL. Aitzitik, EUDELek ez ditu EAEko udalen %40 ordezkatzen. Udalen ordezkaritza burutzen dituen elkarteek hitz egin beharko luke legeak eta ez EUDELi buruz espresuki. Udalen kontrolerako urrats garbia da horrekin guztiarekin eman nahi dena. Hori ez zaigu inondik inora bidezko iruditzen.

TOKI ERAKUNDEAK EZ DIRA AINTZAT HARTZEN: tokiko erakundeen legea izan ordez udalen lege egitasmoa bultzatu nahi izan da. Udalez azpiko erakundeak ez dira aintzat hartzen eta horiek gure herrien antolaketan izan duten garrantzia ez da ageri. Gero eta indar handiagoa duten eskualdeen eta kuadrilen errealitateari ere ez zaio heltzen. Gainera ez da udal eta foru instituzioen artean dagoen errealitatean sakontzeko urratsik ematen.

HERRITARREN PARTEHARTZEA: herritarrengandik gertuen dauden erakundeak izanik herritarrekin zuzenean lan egiteko bitartekoak jarri eta sakondu behar dira. Kultura berri bat



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

sustatu behar da. Horretarako, lege egitasmo hau erabakigarria izan daiteke. Legeak parte-hartzeari aipamen bat egiten badio ere, ez du behar adina baliabide jartzen horretarako. Aukerazko tresna bezala aipatzen da. Urrats zehatzak emateko baino espedienteak betetzeko barnebiltzen ditu parte-hartzeari buruzko edukiak.

Bestalde, ez da ezer egiten udal funtzionamenduan herritarren parte-hartzea ahalbideratzeko: ez plenoan, ez batzorde informatiboetan,... Herritarrentzat inbentzioak beharko luketen hainbat eskubideren inguruan (informazio eskubidea, aintzat hartua izateko eskubidea,...) ez da aipamen bakar bat egiten.

EUSKAL HERRIKO BESTE ERAKUNDE PUBLIKOekin HARREMANTZeko NEURRIAK: ez da inolako aipamen zuzenik egiten Euskal Herriko beste herrialdeetako instituzio publikoekin harremanak ahalbideratzeari begira. Gure iritziz, hori sekulako gabezia da. Lege egitasmo hau aprobetxatu beharko genuke instituzioen arteko harreman guztiak ahalbideratzeko. Bai instituzio nafarrekin eta bai iparraldeko instituzioekin. Gaur egun hainbat egitasmo martxan dira Euskal Herriko beste herrialdeetako erakundeekin elkarlanean. Horiek, berriz ere, arauketa zehatzik gabe eta, larriagoa dena, inolako bermerik gabe geratuko lirake.

Horregatik guztiagatik, Ibarako Udaleko Osoko Batzarrari honako puntu hauek onartzea proposatzen zaio:

- Ibarako Udalak Jaurlaritzari lege egitasmoaren prozeduran epe luzapen bat egin dezala eskatzen dio, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako Udalei ekarpenak egin ahal izateko aukera irekiz.
- Ibarako Udalak Jaurlaritzari eskatzen dio aurkez dezala prozedura, udalek egiten dituzten ekarpenak bideratu, sakondu eta eztabaidatzeko.
- Ibarako Udalak eskatzen dio Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailburuari bitartekoak jar ditzala, mozio honen zioen atalean aipatzen diren gaien inguruan eztabaidatu, irizpideak adostu eta ondorioak bideratzeko.
- Ibarako Udalak deia egiten du, udal zein toki entitateen autonomia indartzeko norabidean urratsak emateko. Orain artean, udalak egitura instituzionalaren azken terminalak izan dira eta egoera hori aldatzea funtsezkoa da. Subsidiaritate Printzipioa oinarritzat hartuta, herritarrengandik gertuen dauden instituzioak izaki, udalak zein gainerako toki entitateak sendotzearen aldeko apustua egitea ezinbestekoa da.
- Erabaki hau Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailburuari bideratuko zaio.

Honakoa ikusi eta aztertu ondoren, Udaltzako, BILDU-ren 6 aldeko botoekin eta EAJ-PNVren kontrako 2 botoekin honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENA: Onartzea eta bat egitea aurkezturiko mozioarekin.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BIGARRENA: Ibarrako Udalak Jaurlaritzari lege egitasmoaren prozeduran epe luzapen bat egin dezala eskatzen dio, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako Udalei ekarpenak egin ahal izateko aukera irekiz.

HIRUGARRENA: Ibarrako Udalak Jaurlaritzari eskatzen dio aurkez dezala prozedura, udalek egiten dituzten ekarpenak bideratu, sakondu eta eztabaidatzeko.

LAUGARRENA: Ibarrako Udalak eskatzen dio Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailburuari bitartekoak jar ditzala, mozio honen zioen atalean aipatzen diren gaien inguruan eztabaidatu, irizpideak adostu eta ondorioak bideratzeko.

BOSGARRENA: Ibarrako Udalak deia egiten du, udal zein toki entitateen autonomia indartzeko norabidean urratsak emateko. Orain artean, udalak egitura instituzionalaren azken terminalak izan dira eta egoera hori aldatzea funtsezkoa da. Subsidiaritate Printzipioa oinarritzat hartuta, herritarrengandik gertuen dauden instituzioak izaki, udalak zein gainerako toki entitateak sendotzearen aldeko apustua egitea ezinbestekoa da

SEIGARRENA: Erabaki hau Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailburuari bideratzea.

BOSGARRENA

MOZIOA: OSASUN PUBLIKOAREN ALDEKO MOZIOA

Iragan abenduan, Osasun Saileko arduradunek, Guillermo Viñegra sailburuordeak, Rafael Uribarren Gipuzkoako osasun arduradunak eta Iñaki Berraondok (Aseguramendu eta kontratazio sanitarioko zuzendaria), Tolosaldeko alkateon ordezkari bati OSI, Eskualdeko osasun arreta antolakuntza integrala, aurkeztu zioten.

Aurkezpen honen bidez, 2015arekin batera, OSIa martxan jarriko zela iragarri zuten eta honen bidez Tolosaldeko osasun arretak hobekuntzak izango zituela esan ere bai.

OSIak Tolosaldean gauza gutxi aldatuko ditu, arazoa ez baita OSIa ezartzea, osasun zerbitzu publikoan klinika pribatu bat egotea baizik.

Klinika pribatuak ezinezko egiten du zerbitzu integral eta koordinatu bat izatea:

- Nola integratu bi sistema, bataren eta bestearen arteko helburuak eta lanerako erak desberdinak izanda. Mila bider adierazi bezala, sistema publikoak herritarrei zerbitzu unibertsala eta kalitatezkoa ematea du helburu; sistema pribatuak, berriz, irabazi ekonomikoak. Ondorioz, klinikak herritarren osasunarekin negozio egiteko bitarteko guztiak erabiliko ditu bere enpresa jarduerari ahal duen errentagarritasun handiena ateratzeko. Horretarako, pertsonal ratio txikiagoak jarri edota bestelako neurriak hartuko ditu. Eta neurri horiek kalitatean eragina dute.
- Nola integratuko dira bi sistemak, besteak beste, programa informatikoak ez badaude oraindik bateratuta.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Udal honen ustez, OSI honen aurkezpena klinika pribatuaren legitimazioa eta onarpena gauzatzeko beste pauso bat da. Beste pauso bat sistemaren privatizazioaren bidean.

Eskualde honetako OSI egoki bakarra, gainerako eskualde guztietakoa bezala, gestio eta arreta publiko integrala, %100ekoa, duena izan behar du.

Legealdi oso bat daramagu udal ordezkariok, eta beste eragile batzuk oraindik denbora gehiago, gauza bera adierazten: Osasun Zerbitzu publikoaren beharra eta honen erakusle Tolosaldean buruturiko, onarturiko eta antolaturiko:

Manifestazio, firma bilketa, mozio, adierazpen, agerraldi e.a.

Honen aurrean, EJKo Osasun Saila, honen guztiaren aurka agertu da, eta Tolosaldeko osasun zerbitzuaren privatizazioa inposatzen jarraitu du. Udal ordezkari, eragile eta herritarron gehiengoaren nahiari bizkar ematen jarraitu du.

Sarri adierazi moduan, Tolosaldean egiten ari direna esperimentu bat da, privatizazioaren esperimentua. Zerbitzu unibertsal eta publiko bat gutxi batzuen negozio bilakatzeko proba.

Sistema publikoan sinesten dugu, sistema publikoa delako osasun arreta hoberena eskaintzen duena, inori bizkar ematen ez diona eta benetan denona dena.

Ez dugu beste inon baino gehiago nahi, baina ezta gutxiago ere, gauza bera nahi dugu: gure eskubideek besteenak adina balio dutelako, osasun sistema publikoa nahi dugu.

Eta hau gauzatzeko ezinbestekoa da bertako eragileen iritzia jaso eta kontuan hartzea. Udala horretarako prest dago, sistema publiko horren eraikuntzan, antolaketan, parte hartzeko, lanerako, ez, ordea, OSI publiko-pribatu bateko organo parte hartzailetara joan eta inposaketa hau legitimatzeko.

Inoiz ez da berandu hartutako erabaki okerrak zuzentzeko, Madrilen gertatu bezala adibidez. Tolosaldeko bizilagunen osasuna dago jokoan, eta horrek edozein hitzarmenek baino balio handiagoa du.

Honen aurrean, Ibarra Udalak eskatzen du:

- Gainontzeko eskualdeetan bezala, gurean ere osasun zerbitzu publikoa bermatzea, gestio publikoa %100ean oinarri izango duena.
- 2011ko azaro aurretik anbulatorioan eskaintzen ziren espezialitate zerbitzu guztiak berriz ere bertan ezartzea.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eskatzea has dadila Klinikaren publikotasuna gauzatzeko ekinbideak egiten.
- Mozio hau bidaltzea Eusko Legebiltzarra osatzen duten talde parlamentarioei, Osasun Sailburuari eta Gipuzkoako BBNetako talde politikoei.

Honakoa ikusi eta aztertu ondoren, Udalbatzak, BILDU-ren 6 aldeko botorekin eta EAJ-PNVren kontrako 2 botoekin honako hau



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

ERABAKITZEN DU

LEHENA: Onartzea eta bat egitea aurkezturiko mozioarekin.

BIGARRENA: Eskatzea gainontzeko eskualdeetan bezala, gurean ere osasun zerbitzu publikoa bermatzea, gestio publikoa %100ean oinarri izango duena.

HIRUGARRENA: Eskatzea 2011ko azaro aurretik anbulatorioan eskaintzen ziren espezialitate zerbitzu guztiak berriz ere bertan ezartzea.

LAUGARRENA: Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eskatzea has dadila Klinikaren publikotasuna gauzatzeko ekinbideak egiten.

BOGARRENA: Mozio hau bidaltzea Eusko Legebiltzarra osatzen duten talde parlamentarioei, Osasun Sailburuari eta Gipuzkoako BBNetako talde politikoei

SEIGARRENA

GALDE-ERREGUAK

Ez dira egin.

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, bilera amaitutzat ematen da goiburuan adierazitako egunaren arratsaldeko zazpiak eta berrogeita hamabostetan. Nik, behin-betiko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut bertan jasotakoaren berri emateko.